



BERGARAKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAK KUDEATUTAKO PROGRAMEN KONTURAKO ZENBAIT DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DITUEN ARAUTEGIA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala.

Onartuta: Udalbatzak 2006/06/19an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010/09/13an

Akats zuzenketa:

Onartuta: Udalbatzak 2010/01/25ean

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010/03/22an

AURKIBIDEA:

ZIOAK AZALTZEA.....	3
BERGARAKO UDAL EUSKALTEGITIK KANPO EUSKARAZ IKASTEN DUTENENTZAKO DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA	4
1.- HELBURUA	4
2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK	4
3.- FINANTZIAZIOA.....	4
4.- ESKAERAK	4
5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.....	5
6.- ERABAKIA.....	6
7.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK	6
8.- DIRULAGUNTZA ORDAINTEKO MODUA	6
9.- DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA	6
10.- DIRULAGUNTZA ALDATZEA.....	7
11.- DIRULAGUNTZA EZEZTATZEA	7
12.- HARTUTAKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA	7
13.- ARAUTEGI HONEN INTERPRETAZIOA.....	7
14.- ZUZENBIDE OSAGARRIA	7
UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATERA (UEU) JOATEKO DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA	8
1.- HELBURUA	8
2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK	8
3.- FINANTZIAZIOA.....	8
4.- ESKAERAK	8
5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.....	9
6.- ERABAKIA.....	9
7.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK	9
8.- DIRULAGUNTZA ORDAINTEKO MODUA	10
9.- DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA	10
10.- DIRULAGUNTZA ALDATZEA.....	10
11.- DIRULAGUNTZA EZEZTATZEA	10
12.- HARTUTAKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA	10
13.- ARAUTEGI HONEN INTERPRETAZIOA.....	11
14.- ZUZENBIDE OSAGARRIA	11

ZIOAK AZALTZEA

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilpena arauzkotzezkoak, bere 5. artikuluan Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar guztiek hizkuntzaren esparruan dituzten eskubide nagusiak xedatzen ditu, eta ondoren bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren atalburuetan eskubide horiek bizitza sozialaren esparru guztietara hedatzen ditu. Legeak, halaber, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten agintzen die herri administrazioei, besteak beste bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

Horregatik, eta Udalaren dirulaguntza emanez lortu nahi den interes publikoa eta Udalaren dirulaguntza-jarduerek bete behar dituzten printzipioak (hala nola publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza, eragingarritasuna eta eraginkortasuna) betetzea bermatzeko, ordenantza hau egin du Udalbatzak, parte hartzen duten udal organoen eta dirulaguntzen onuradun izan litezkeen erakundeen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen marko juridiko orokorra jasotzeko. Eta behar den publizitatea emango dio dokumentuari, inplikaturik dauden alde guztiek jakin dezaten horren berri.

Horregatik guztiagatik, honako edukia duen Arautegi hau onartu da:

Artikulu bakarra. Xedea.

Arautegi honen xedea da Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatutako programa batzuen konturako dirulaguntzak arautzea. Zehazki ondorengo hauek:

- Bergarako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenentzako diru-laguntzak
- Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroetan parte hartzeko diru-laguntzak.

Diru-laguntza bakoitza I eta II. eranskinetan arautzen da hurrenez hurren.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGITIK KANPO EUSKARAZ IKASTEN DUTENENTZAKO DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA

1.- HELBURUA

Dirulaguntza hauen helburua da Bergarako bizilagunek euskara ikasteko ikastaroetan parte har dezaten bultzatzea.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Dirulaguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Bergaran erroldatuta egotea eskaera aurkeztu baino 2 hilabete lehenagotik.
- Aurreko urteko irailetik laguntza ematen den urteko abuzturako tartean euskara ikastaro batean parte hartzea, Udal Euskaltegitik kanpo.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.
- Egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere.
- Laguntza jasotzeko gutxienez honako asistentzia izan dela egiaztatzea: %90ekoa barru-ikastaroen kasuan eta %85ekoa gainontzekoetan.

3.- FINANTZIAZIOA

Urtero udal aurrekontuan diru kopuru bat izendatuko da dirulaguntza hauetarako. Kopuru zehatzak interesatuei jakinaraziko zaizkie Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bitartez.

4.- ESKAERAK

Eskaerak derrigorrez Euskara Zerbitzuak emandako inprimakian aurkeztu beharko dira urte bakoitzeko irailaren 15a baino lehen, behar bezala beteta eta sinatuta Agirien Udal Erregistroan (Idazkaritzan) edo 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan, ondorengo dokumentazioarekin batera:

- Nortasun Agiriaren kopia.
- Matrikularen ordainagiria.
- Euskaltegiaren ziurtagiria, asistentzia zenbatekoa (asistentziaren %) izan den azalduko duena.
- Langabetu-txartelaren kopia (lanik gabe egonez gero).

- Erakundeei e.a. egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik emandako dirulaguntzen gaineko zinpeko aitortpena.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako dirulaguntzak jasotzeko debeku-kausen pean ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.
- Azkeneko urteko errenta deklarazioaren kopia edo egin ez izanaren zioa adierazten duen ziurtagiria. (Beka eskatzen bada bakarrik)
- Bizikidetzaren agiria. (Beka eskatzen bada bakarrik)
- Familia ugariko kideek, hori egiaztatuko duen txartela.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileek bere horretan onartzen dituztela araudi honetan ezarritako baldintzak.

Ez da beste dokumentazio motarik onartuko.

Bergarako Udalak eskatutako dokumenturen bat lehendik edukiko balu, dirulaguntzaren eskatzaileak ez luke aurkeztu beharrik izango, beti ere, eskaeran aurkeztu zireneko data eta organo edo bulegoa adierazten badira, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro dagokien prozedura bukatu zenetik.

Hala ere, dokumentua lortzeko ezintasun materiala balego, organo eskudunak eskatu ahal izango du agiri hori aurkeztea, erabaki-proposamena egin aurretik.

5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Emango diren laguntzak honako hauek izango dira:

5.1. Beka. Beka eskaria egiteko, etxeko bizikide kopuruaren arabera, urte bakoitzean onartuko diren gehienezko diru-sarrera garbiak Udal Euskaltegiak bertako ikasleentzako laguntzetan aplikatzen dituen berak izango dira. Erreferentzia gisa, 2010. urtean kontuan hartuko diren kopuruak hauek izango dira:

<u>Bizikide kopurua</u>	<u>Diru-sarrera garbia</u>
1	10.668,00 €
2	17.377,00 €
3	22.820,00 €
4	27.069,00 €
5	30.717,00 €
6	34.241,00 €

Beka eskatzeko baldintzak betetzen dituztenei matrikulagatik ordaindutako **kopuru osoa itzuliko zaie**.

5.2. Langabetuentzako, familia ugarietako kideentzako eta 65 urtez gorakoentzako laguntza. Langabezia egonez gero, familia ugariko kidea izanez gero edo 65 urte baino gehiago izanez gero, ordaindutakoaren %60 berreskuratzea ahal izango da.

5.3. Gutxieneko dirulaguntza. Aurreko dirulaguntza motetatik kanpo gelditzen den ikasle orori, ordaindutakoaren %25 bueltatuko zaio.

Laguntzotarako aurreikusitako aurrekontua goian adierazitako gehienezko laguntzak emateko bestekoa ez balitz, eskari guztien artean proportzian banatuko da.

6.- ERABAKIA

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara departamentuak aztertuko ditu, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko.

Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Euskarako Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari erabakia har dezan.

Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako dirulaguntzen informazioa udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta, gehienez, hiru hilabeteko epean hartuko da erabakia.

Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

Udalak, Batzorde Informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

7.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Dirulaguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.
- b) Dirulaguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea.
- c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jartzea.
- d) Bergarako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste dirulaguntzen berri ematea.
Horren berri jakin bezain laster egin beharko da komunikazio hau eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoan erabilerari buruzko egiaztapenak gutxienez bost urtez gordetzea.
- e) Jasotako fondoan erabilerari buruzko egiaztapenak gutxienez bost urtez gordetzea.
- f) Jasotako dirulaguntza itzultzea, horretarako arrazoiren bat izango balitz.

8.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA

Udalak erabakia hartutakoan onartutako dirulaguntzaren %100a ordainduko du.

9.- DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu berberengatik jasotako beste edozein dirulaguntzarekin.

Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, beste dirulaguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.

10.- DIRULAGUNTZA ALDATZEA

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

11.- DIRULAGUNTZA EZEZTATZEA

Dirulaguntza berrikusteko eta, hala egokituz gero, ezeztatu eta jasotako dirulaguntza itzultzeko arrazoï izango dira:

- a) Dirulaguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Dirulaguntzaren helburua, osorik edo zati batean, ez betetzea.
- c) Diru-laguntzari eman zaion erabilera zuritzeko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
- d) Finantzen kontrol- eta frogatze-jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzea edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako diru-laguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude.
- e) Araudi honetan diru-laguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

12.- HARTUTAKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Dirulaguntza ezeztatzea ez dakarren ez-betetze bakoitza laguntzaren %5arekin zigortuko da dagokion espedientea tramitatu eta interesatuari audientzia eman ondoren.

13.- ARAUTEGI HONEN INTERPRETAZIOA

Arautegi honen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu.

14.- ZUZENBIDE OSAGARRIA

Arautegi honetan espreski zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 legea, dirulaguntzei buruzkoa, aplikatuko da.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATERA (UEU) JOATEKO DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA

1.- HELBURUA

Dirulaguntza hauen xedea da Udako Euskal Unibertsitateak (UEUK) antolatutako ikastaroetan Bergarako bizilagunen parte hartzea bultzatzea.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Dirulaguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Bergaran erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino 12 hilabete lehenagotik.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.
- Egunean egotea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere.

3.- FINANTZIAZIOA

Urtero udal aurrekontuan diru kopuru bat izendatuko da dirulaguntza hauetarako. Kopuru zehatzak interesatuei jakinaraziko zaizkie Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bitartez.

4.- ESKAERAK

Eskaerak derrigorrez Euskara Zerbitzuak emandako inprimakian aurkeztu beharko dira urte bakoitzeko irailaren 15a baino lehen, behar bezala beteta eta sinatuta Agiriaren Udal Erregistroan (Idazkaritzan) edo 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan, ondorengo dokumentazioarekin batera:

- Nortasun Agiriaren kopia.
- Matrikularen ordainagiria.
- UEUko ziurtagiria, ikastaroan parte hartu izana egiaztatuko duena.
- Langabetu txartelaren kopia edo ikaslea dela edo, behintzat, aurreko ikasturtean ikasle izan dela egiaztatuko duen ziurtagiria. (%100eko laguntza lortu ahal izateko, aurkeztu beharrekoa).
- Erakundeei e.a. egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik emandako dirulaguntzen gaineko zinpeko aitortpena.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako dirulaguntzak jasotzeko debeku-kausen pean ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileek bere horretan onartzen dituztela araudi honetan ezarritako baldintzak.

Ez da beste dokumentazio motarik onartuko.

Bergarako Udalak jadanik edukiko balu eskatutako dokumenturen bat, dirulaguntzaren eskatzaileak ez luke aurkeztu beharrik izango, beti ere, eskaeran aurkeztu zireneko data eta organo edo bulegoa adierazten badira, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro dagokien prozedura bukatu zenetik.

Hala ere, dokumentua lortzeko ezintasun materiala balego, organo eskudunak eskatu ahal izango du agiri hori aurkeztea, erabaki-proposamena egin aurretik.

5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Emango den gehienezko laguntza honakoa izango da:

- Lanik gabe egonez gero edo ikaslea izanez gero, matrikula eta egoitzaren kostu osoaren %100ekoa. Aurreko ikasturtean ikasle izan denari ikasle kontsiderazioa emango zaio, nahiz eta eskaera aurkezten duen momentuan ez izan
- Lana izanez gero, matrikula eta egoitzaren kostu osoaren %75ekoa.

Kasu baten ere ez da diruz lagunduko bestelako gasturik: bidai-gastu eta abar

Laguntzotarako aurreikusitako aurrekontua goian adierazitako gehienezko laguntzak emateko bestekoa ez balitz, eskari guztien artean proportzioan banatuko da.

6.- ERABAKIA

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara departamentuak aztertuko ditu, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko.

Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Euskarako Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari erabakia har dezan.

Erabakia interesatuari jakinarazioko zaio eta, halaber, emandako dirulaguntzen informazioa udal iragarki taulan argitaratuko da.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta, gehienez, hiru hilabeteko epean hartuko da erabakia.

Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

Udalak, Batzorde Informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

7.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Dirulaguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.
- b) Dirulaguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea.
- c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jartzea.
- d) Bergarako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste dirulaguntzen berri ematea.

Horren berri jakin bezain laster egin beharko da komunikazio hau eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoan erabilera justifikatu aurretik.

- e) Jasotako fondoan erabilerari buruzko egiaztagiriak gutxienez bost urtez gordetzea.
- f) Jasotako dirulaguntza itzultzea, horretarako arrazoiren bat izango balitz.

8.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA

Udalak erabakia hartutakoan dirulaguntzaren %100a ordainduko du.

9.- DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu berberarengatik jasotako beste edozein dirulaguntzarekin.

Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, beste dirulaguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.

10.- DIRULAGUNTZA ALDATZEA

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

11.- DIRULAGUNTZA EZEZTATZEA

Dirulaguntza berrikusteko eta, hala egokituz gero, ezeztatu eta jasotako dirulaguntza itzultzeko arrazoi izango dira:

- a) Dirulaguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Dirulaguntzaren helburua, osotasunean edo partzialki, ez betetzea.
- c) Diru-laguntzari eman zaion erabilera zuritzeko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
- d) Finantzen kontrol- eta frogatze-jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzea edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako diru-laguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude.
- e) Araudi honetan diru-laguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

12.- HARTUTAKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Dirulaguntza ezeztatzea ez dakarren ez-betetze bakoitza laguntzaren %5arekin zigortuko da dagokion espedientea tramitatu eta interesatuari audientzia eman ondoren.

13.- ARAUTEGI HONEN INTERPRETAZIOA

Arautegi honen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu.

14.- ZUZENBIDE OSAGARRIA

Arautegi honetan espreski zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 legea, dirulaguntzei buruzkoa, aplikatuko da.